



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Errenteriako Udalaren 2022. urterako lanpostu-zerrenda eta langile-plantilaren aldaketa.

Udalbatzarrak, 2022ko maiatzaren 31ko ohiko batzarrean, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

«*Lehenengoa.* Udala honetako lanpostuen zerrenda aldatzea ondorengo eran:

— Ezabatzea Kontratazio eta Ondareko administrari laguntzaile lanpostuaren 2302.1 dotazioa, gaur egun hutsik dagoena.

— Ezabatzea Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaile lanpostuaren 6012.2, 6012.5 eta 6012.6 dotazioak, gaur egun hutsik daudenak.

— Gehitzea dotazio batekin Kontratazio eta Ondareko administrari lanpostua, Lanpostuen Zerrendako 2304 kodea duena, ondoren jasotzen diren ezaugarriekin.

— Gehitzea hiru dotazioekin Gizarte Zerbitzuetako administrari lanpostua, Lanpostuen Zerrendako 6016 kodea duena, ondoren jasotzen diren ezaugarriekin.

Berariazko osagarriari dagozkion zenbatekoek 2022ko ekitaldirako onartutako soldata-igoera jasota dute.

Identifikazioa Identificación								Eskatutako baldintzak Requisitos exigidos						Ordainketa Retribución	
Egitura kodea Est. cód.	Lanpostuaren izena Denominación del puesto	F/L/E	LM TP	DZ ND	DM RD	P S	AD	ST	ES	AZ SU	Tit.	HE	Derrig. data Fecha precep.	N.O. N.CD	O.B. C. esp.
2304.3	Kontr./Ondar. Admini. Adtvo-a Contr./Patrim.	F	N	3	1	C	ER	C1	2	4	300	3	2022-05-31 31-05-2022	19	16.192,12
6016.4	Gizarte Zerb. Administr. Adtvo-a Servicios Social.	F	N	5	1	C	ER	C1	2	4	300	3	2022-05-31 31-05-2022	19	16.192,12

Identifikazioa Identificación							Eskatutako baldintzak Requisitos exigidos							Ordainketa Retribución	
Egitura kodea Est. cód.	Lanpostuaren izena Denominación del puesto	F/L/E	LM TP	DZ ND	DM RD	P S	AD	ST	ES	AZ SU	Tit.	HE	Derrig. data Fecha precep.	N.O. N.CD	O.B. C. esp.
6016.5	Gizarte Zerb. Administr. Adtvo-a Servicios Social.	F	N	5	1	C	ER	C1	2	4	300	3	2022-05-31 31-05-2022	19	16.192,12
6016.6	Gizarte Zerb. Administr. Adtvo-a Servicios Social.	F	N	5	1	C	ER	C1	2	4	300	3	2022-05-31 31-05-2022	19	16.192,12

Bigarrena. Udala honetako langile-plantila aldatzea ondorengo eran:

— Lau administrari laguntzaile plaza ezabatzea, funtzionarioentzat gordetakoak, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, azpieskala laguntzailea.

— Lau administrari plaza sortzea, funtzionarioentzat gordetakoak, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, azpieskala administratiboa.

Hirugarrena. Langile-plantilan egindako aldaketa argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta 15 egun uztea erreklamazio eta iradokizunak egiteko. Epe horretan inork ez balu erreklamaziorik egingo, egindako aldaketa behin-betiko egintzat joko litzateke.

Laugarrena. Lanpostuen zerrendaren aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Aldaketak ondorioak izango ditu bigarren puntuari jasotzen den plantilla-aldaketa behin betiko onartutzat jotzen den unetik aurrera.»

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsio jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Horrenbestez guztien ezagupenerako jakinarazten dut.

Errenteria, 2022ko ekainaren 3a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria. (3839)